

Etxean kontu-kantari 3

Kukurruku!

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Etxean elkarrizketa polit bati hasiera eman diezaioke helduak. Goizean esnatzerakoan helduak: kukurruku! Eta haurrak: zer diozu?... Esnatzeko modu polita, ezta?

- Kukurruku!
- Zer diozu?
- Buruko min.
- Zeinek egin?
- Axeriak.
- Axeria non da?
- Txotxak biltzen.
- Txotxak zertarako?
- Sua pizteko.
- Sua zertarako?
- Amona berotzeko.
- Amona zertarako?
- Oiloari jana emateko.
- Oiloa zertarako?
- Arrautza egiteko.
- Arrautza zertarako?
- Gu guztiok jateko.

Kanika txikia

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Familiako hainbat kide elkartu, heldu zein haur eta kanika eskutik eskura pasaz abesti polit honekin jolasteko proposamena luzatzen dizuegu. Jokalari bakoitzak esku-ahurrak elkarturik izango ditu. Batek bi eskuen artean gordetako kanika pasako du jokalarien esku tarteetan, abestia amaitzean besteek asmatu behar dute zeinen eskuetan utzi duen kanika.

Kanika txiki bat dabil
saltoka eskutik eskura.
Nork ote du?
Nork ote du?
Nork ote du
gure kanika.

Makila kixki

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Dibertitzeko ipuin bat proposatzen dizuegu; ipuin honetan zintzotasuna eta zuhurtasuna azpimarratzen dira. Ongia eta gaizkia, ondo egiten duenak saria jasotzen du. Garai, haietan aberastasuna...

Ipuin hau kontatzeko erraza da, eskema behin eta berriz errepikatzen da; entzun behin edo behin eta animatu zuek zuen modura kontatzera.

Baratzeko pikuak

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Familiako hainbat kide eta lagunak borobilean jarri eta kantuan eta dantzan aritzeko arin-arina daukazue ondorengo.

Baratzeko pikuak
hiru txorten ditu.
Dantzan dabilen horrek
oinak arinak ditu.

Oinak arinak eta
burua arinago.
Dantzan hobeki daki
arta jorran baino.